

**Erreferentzia kodea:** ES/NA/AACF/2/022

**Izenburua:** ADINGABEAK BABESTEKO PROBINTZIA BATZORDEA

**Datak:** 1924-1985

**Deskribapen maila:** Funtsa

**Bolumena eta euskarria:** 373 instalazio unitate

**Sortzailea:** ADINGABEAK BABESTEKO PROBINTZIA BATZORDEA

#### **Erakundearen historia:**

1904ko abuztuaren 12ko Legearen bidez, Haurrak Babesteko Kontseilu Gorena sortu zen, baita probintziako eta tokiko batzordeak ere, eta, 1908ko urtarrilaren 24ko Errege Dekretuaren bidez, hura aplikatzeko Erregelamendua onartu zen. Hamar urte geroago, 1918ko azaroaren 25eko Legeak adingabeen auzitegien antolaketa eta eskudantziak onartu zituen. 1932ko apirilaren 16ko Dekretu berri batek xedatu zuen Haurrak Babesteko Kontseilu Gorena —aurrerantzean Adingabeak Babesteko Kontseilu Gorena deituko zena—, Justizia Ministerioaren menpe egonen zela zuzenean.

Adingabeen Babesari buruzko legeria hori guztia testu batean bildu zen, 1948ko uztailaren 2ko Dekretuaren bidez onartua. Testu horrek, gainera, Adingabeak Babesteko Obra sortu zuen, honako hauek osatua: Adingabeak Babesteko Kontseilu Gorena, Adingabeak Babesteko Probintzia Batzordeak, Adingabeen Tutoretzako Auzitegiak eta adingabeak babesteko beste erakunde osagarri batzuk.

Dekretu horren arabera, probintziako hiriburu bakoitzean Adingabeak Babesteko Batzorde batek funtzionatuko zuen, gobernadore zibila buru zela, eta osoko bilkuran edo batzorde iraunkorrean biltzen ahalko zen. Hiru atal zeuden batzorde bakoitzean:

*Puerikultura eta Lehen Haurtzaroa* izenekoak osasuneko eta puerikulturako izaera eksklusiboa zuen, eta honako eginkizun hauek zituen, besteak beste: anbulatorioak sortzea, baliabide ekonomikorik gabe haurdun zeuden emakumeei eta egoera horretan jaiotako haurrei laguntzea, eta hiru urtetik beheitikoei babesa ematea.

Bigarren atalak, *Gizarte Laguntza* izenekoak, izaera mistoa zuen: adingabeentzako laguntzaren eta osasunaren arlokoa zen, eta, beraz, haiei laguntzeko eta babesteko ardura zuen.

Hirugarren atala, *Eskekotasuna eta Tutoretza Morala*, tutoretza izaerakoa zen, eta adingabeak eskekotasunetik, arrisku moraletik eta delitutik babesteaz arduratzen zen.

Adingabeak Babesteko Obraren eta Tutoretza Auzitegien menpeko langileen arau organikoek —1949ko apirilaren 25eko Aginduaren bidez onartuak— jasotzen zuten Nafarroako Adingabeak Babesteko Probintzia Batzordea bigarren kategoriakoa izanen zela haren menpeko langileen soldatei zegokienez.

Haurrak babesteko eta eskekotasunari aurre egiteko batzordeei eusteko, 1910eko abenduaren 29ko Aurrekontuen Legearen bederatzigarren xedapen bereziaren bidez ikuskizun publiko ororen sarreren gaineko % 5eko zerga sortu zen, eta, 1948ko uztailaren 2ko Dekretuan, berriro arautu zen.

Nafarroan, Diputazioak 1932ko otsailaren 12an hartutako Erabaki batek udalen esku utzi zuen jendaurreko ikuskizunen txartelen gaineko zerga, eta Adingabeen Babes Batzordeari ohartarazi zion (1944ko otsailaren 12ko Diputazioaren Erabakia), emana zitzaion ikuskizunen gaineko zergaren bilketaren emaitzaren kudeaketa ekonomikoari zegokionez, Diputazioaren esanetara zegoela zuzenean eta gastuen eta sarreren aurrekontua aurkeztu behar ziola, bai eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko kontuak ere.

Juan Luis Beltran Aguirrek Adingabeak Babesteko Nafarroako Araubide Juridikoa izeneko artikuluan<sup>1</sup> adierazten duenez, Foru Diputazioak zenbait kudeaketa egin zituen Probintzia Batzordearekin, zegozkion eginkizunak bere gain hartzeko eta eskumenak eskualdatzeko. Hala ere, 1985 arte ez zuen helburua lortu.

1985erako Estatuko Aurrekontuei buruzko 50/1984 Legeak erakunde autonomo batzuk ezabatzea aurreikusten zuen, haien artean Adingabeak Babesteko Obra. Abuztuaren 1eko 1449/1985 Errege Dekretuaren bidez, Adingabeak Babesteko Obra iraungi zen eta Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion (abuztuaren 1eko 1775/1985 Errege Dekretua) Estatuak adingabeen babesaren arloan zituen eginkizun eta zerbitzuak, eta, bereziki, Adingabeak Babesteko Probintzia Batzordea eta hari atxikitako zentroak.

---

<sup>1</sup> Beltrán Aguirre, Juan Luis: Régimen Jurídico de la Protección de Menores en Navarra, Revista Jurídica de Navarra, 4. zk., uztaila-abendua, 1987, 117. orria eta hurrengoak

## **Funtsaren antolamendua:**

### **022.01 GOBERNUA**

- 022.01.01 Batzordearen aktak
- 022.01.02 Bilkuren espedienteak
- 022.01.03 Tokiko batzordeen kontrola

### **022.02 ADMINISTRAZIOA**

- 022.02.01 Nafarroako Gobernuari egindako transferentziak
- 022.02.02 Memoriak
- 022.02.03 Korrespondentzia

### **022.03 LANGILEAK**

- 022.03.01 Langileen espedienteak

### **022.04 KONTABILITATEA**

- 022.04.01 Aurrekontuak
- 022.04.02 Diru-sarreraren eta gastuen egiaztagiriak
- 022.04.03 Liburu egunkariak
- 022.04.04 Liburu nagusiak
- 022.04.05 Kutxako liburuak
- 022.04.06 Kontu korronteen liburuak
- 022.04.07 Dieten liburuak
- 022.04.08 % 5eko zergaren administrazioa
- 022.04.09 Kontabilitate fitxak

### **022.05 ONDAREA**

- 022.05.01 Ondasunen kudeaketa

### **022.06 ADINGABEEN BABESA**

- 022.06.01 Batzordeko pentsiodunen espedienteen erregistroak
- 022.06.02 Adingabeentzako laguntzen espedienteak
- 022.06.03 Haurren zentsuak
- 022.06.04 Adingabeen babes eta tutoretza espedienteak

### **022.07 HAUR ETXEAK ETA HAURTZAINDEGIAK**

- 022.07.01 Onarpen espedienteak
- 022.07.02 Adingabeen tutoretza
- 022.07.03 Haurren espedienteen erregistroak
- 022.07.04 Haurren zentsuak

### **022.08 ZENTROEN KUDEAKETA**

- 022.08.01 Adingabeen Tutoretzako Auzitegiaren familia-etxea

## **Sarrera baldintzak:**

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.